

Aro berria zabaldu da

*San Antonio Spurs da NBAko txapelduna,
New Yorki 4-1 irabazi ondoren*

New York	San Antonio	New York.- Ward (4), Houston (16), Sprewell (35), Johnson (7), Camby (7) —hasierako bostekoa—, Childs (2), Thomas (6), Dudley, H. Williams.
77	78	
(2), Duncan (31), Robinson (15) —hasierako bostekoa—, Jackson (11), Rose (1), Kerr, Daniels.		
ATSEDENALDIAN: 35-40.		
ARBITROAK: Jose Crawford, Steve Javie, Bennett Salvatore		
PABILIOIA: Madison Square Garden. 19.763 ikusle.		
FINALEKO EMAITZAK: (San Antonio-New York) 4-1.		
89-77; 80-67, 89-81, 89-96, 78-77.		

Gorka Zabaleta / Donostia

MICHAEL JORDANEN ondorengo lehen titulua San Antonio Spurs taldeak lortu du. NBAREN historiako denboraldi laburrena izan da, ilunena, baina San Antoniok lortutako titulu honek aurrekoak bezainbeste balio du, eta bide batez, aro berri bati eman dio hasiera. Hemendik aurrera Michael Jordanen Chicago Bulls historia izango da; hemendik aurrera Tim Duncanen San Antonio Spurs izango da hizpide. Duncan ez da Jordan, baina bada Chicago izarraren itzalpetik ateratzeko garaia.

San Antoniok denboraldiko talde onena izan da, sendoena. Baliabide gehien erakutsi duena izan da behintzat. Taulapean NBAko bikote onena du. David Robinsonek lagun bikaina aurkitu du behingoz zonako jokoaz jabe-

tzeko. Avery Johnsonek taldearen jokoa bikain zuzendu du, eta Alberto Elie eta Elliot fin aritu dira hegaletatik.

New York Knicks taldeak bere historia-ko hirugarren txapelketa irabazteko aukera izan du, baina ez dira San Antonioki aurre egiteko gauza izan. Patrick Ewing lesionatuta, New Yorkek ezin izan du gauza handirik egin. Partidu bat irabazi du —Madison Square Gardenen jokaturako lehena—, eta eskerrak. Latrell Sprewell eta Allen Johnson izan dira onenak, taldea aukerekin irau-narazi dutenak, baina ez da nahikoa izan.


Tim Duncan, finaleko jokalaria onena

Tim Duncan izendatu dute finaleko jokalaria onena, merezita. Iaz lehen urteko jokalaria onena izan ondoren, aurten gizon erabakigarria izan da San Antoniok finala irabazteko. Batez beste, 27,4 puntu eta 14 errebote lortu ditu finaleko bost partiduetan. Geldiezina izan da New Yorkentzat. Lehen partiduan 33 puntu egin zituen eta 16 errebote lortu; bigarrenean, 25 puntu eta 15 errebote; hirugarrean, 20 puntu eta 12 errebote; laugarrean, 28 puntu eta 18 errebote; eta azkenean, 31 puntu eta 9 errebote.

hitz bitan

Tim Duncan: Finaleko onena izan da. Zenbakiak begiratu besterik ez dago: batez beste, 27,4 puntu eta 14 errebote. New Yorkek ez zuen Duncan geldiaraziko zuen gizonik, eta hortxe erabaki da finalaren zati handiena. Duncan iritsi berria da NBARA, baina jadanik izartzat hartu behar da.

zuen, 31 puntu sartuz, eta Madison Square Gardenen bildutako ikusleek taldea inoiz baino gehiago bultzatu zuten, baina alferrik, oraingoan miraria San Antoniok egin baitu.



David Robinson eta Tim Duncan, San Antonio Spurseko dorre bikiak.

Robinson: «Ametsa gauzatu dut»

DAVID ROBINSONEK lortu du azkenean NBAko eraztuna. Pibot veteranoak bere bizitzako ametsa gauzatu ikusi du, denboraldi askotan *play-off*-etan porrot egin ondoren. Aurten Tim Duncan izan du ondoan, eta bien artean NBAko pibot bikote beldurgarria osatu dute, San Antonioko *dorre*

bikiak. «Unibertsitatean jokatzen nuenetik une hau bizi nahi izan dut, eta azkenean iritsi da», esan zuen Robinsonek. «NBAko saskibaloia onena egin du gu denboraldi osoan zehar, eta eraztuna merezi genuen», jarraitu zuen.

Bestalde, Gregg Popovitz entrenatzailearen ustez hiru

gizon erabakigarriak izan ziren azken partidua irabazteko: Sean Elliot, David Robinson, eta batez ere Avery Johnson. «Averyk inork baino gehiago merezi zuen azken saskiratzea sartzea, urte osoan bera izan baita gure oinarria, kantxan zein kanpoan», esan zuen Popovitzek.

Baina finaletako

protagonista nagusia Tim Duncan izan da. Finaletako jokalaria onena izendatu dute. «Gauza bakar bat esan dezaket, guzti hau sinestezi-na dela; zaila da niretzat txapeldunak garela sinestea», esan zuen Duncanek. Tim Duncanek denboraldi amaiera bikaina egin du. Erabakigarria.

NBAko

Taldea

Boston Celtics
L.A. Lakers
Chicago Bulls
Golden State
Philadelphia
Detroit Pistons
New York Knicks
Houston Rockets
Milwaukee Bucks
Portland Trail Blazers
Sacramento Kings
Atlanta Hawks
Seattle SuperSonics
Washington Wizards
Baltimore Bullets
San Antonio Spurs